

Industria Diseinuko Ikastaro Aurreratua berria Bilbon

2014/02/19

Aldaketa handien eta erronka handiagoen garai honetan, Diseinu Estrategikoa geroz eta gehiago jotzen da berrikuntzaren motortzat. Horregatik, geroz eta gehiago eskatzen da diseinuaren tresnak ezagutzeko eta ideia berriak sortu eta negozio berriak zehazteko behar diren trebeziak izatea.

Premia horren jakitun, Mondragon Unibertsitateak eta Bilbao-Bizkaia Desing&Creativity Council-ek (Bilboko Udalak eta Bizkaiko Foru Aldundiak bultzatutako organoak), Industria Diseinuko Ikastaro Aurreratua jarriko dute abian Bilbao Berrikuntza Faktorian, Mondragon Unibertsitateak Bizkaiko hiriburuan duen egoitzan. Ikastaro horren bidez, parte-hartzaileak industria-diseinuaren mundua eta haren ezarpenak barneratzeko ezagutzak eta tresna praktikoak eskuratuko dituzte.

Ikastaroaren helburua honako hau da: parte-hartzaileak Diseinu Estrategikoa edo Desing Thinking-aren tresna berrietan trebatzea, diziplina horrek produktu eta zerbitzu berriak zehazteko eta negozio berriak sortzeko duen ahalmena barneratzeko.

Ikastaroak, gainera, Bilbo eta Bizkaia industria-diseinuaren erreferentzia bihurtu nahi ditu, diseinuaren ikuspegi estrategiko hori duten esperientziak eta ekimenak sortuz.

Mondragonen izenean Industria Diseinuko ikastaroaren arduradun Elisabeth Urrutiaren esanetan, "sorkuntzaren, diseinuaren, industria-prozesuen eta merkatuaren artean dagoen lotura estua dela eta, diseinua enpresaren eta gizarte-eskariaren arteko bitartekaritza egiteko plataforma ezin hobea da". Horregatik, euskal ETE-en diseinuan enpresa eta instituzioen parte hartzea sustatzea ere bada ikastaroaren beste helburu bat. *"Industria-diseinuaren ikuspegi estrategiko hori duten adituak sortzea da ikastaroaren erronka, industriaren berrikuntza bultzatzeko oso-oso garrantzitsua da eta"*.

Parte-hartzaileak diseinuaren ikuspegi integraletik abiatuta trebatuko dira industria-diseinuaren diziplinan. Alegia, alderdi estrategikoenak nahiz operatiboenak ere landuko dira. Azken batean, honako trebezia hauek garatzeko trebatuko dira ikasleak:

- Enpresetan diseinu estrategikoak duen eginkizunaz jabetzea
- Negozio-estrategiak sortu eta erakundeak eraldatzeko ezagutza, diseinu-tresnak eta sorkuntza-potentziala barneratzea.
- Diseinua gestionatu eta zuzentzeko oinarrizko ezagutzak biltzea.

Ikastaroa martxoaren 7an hasi eta ekainaren 14ra arte iraungo du. Ostiral arratsaldetan eta larunbat goizetan emango da, guztira 24 egun eta 100 ordu bete arte. Esan bezala, ikastaroa Mondragon Unibertsitateak Uribitarte 6 kalean ireki duen ikastetxean emango da. Honako hauei zuzenduko zaie: alde batetik, enpresa-eskarmentua duten pertsonen, eta industria-diseinuaren diziplina eta industria-jardueretan txertatzeko sorkuntza-prozesuetan duen ahalmena ezagutu nahi dutenei; eta bestetik I+G+b alorreko arduradunei, zuzendari teknikoari, marketin-zuzendariei eta berrikuntzari lotutako alderdietan erabakiak hartu behar dituzten pertsonen. Era berean, instituzioak ere badira ikastaro horretarako hartzaile potentzialak, bertako teknikari eta arduradunek euren eguneroko lan-prozesuetan industria-diseinuaren gestioari buruzko ikuspegia txertatzeko aukera izango dute eta.

Hortaz, Industria Diseinuko ikastaro aurreratuari esker, enpresetako profesionalak ikusiko dute diseinu estrategikoari esker negozio iraunkorrerako aukera berriak ireki daitezkeela, diseinuko berrikuntza-osagai handiarekin.



Industria Diseinuko Ikastaro Aurreratua

Ikastaroaren egitaraua eta egitura

Ikastaroa gaztelaniaz izango da eta sei modulutan banatuko da, partaidetzako metodologian oinarrituta. Irakasleen % 50 Unibertsitatekoa izango da, eta gainerako % 50a nazioko eta nazioarteko kontsultore eta aditua. Modulu bakoitzaren hasieran, Mondragon Unibertsitateko irakasleek azalpen teoriko bat eskainiko dute, eta ondoren diseinuko profesional eta adituek kasu errealak aurkeztuko dituzte. Azkenean, ariketa praktikoak egingo dira ikasgelan bertan.